

7. BEZEROEKIKO HARREMANAK

Bezeroekiko eta gure produktua erabiliko duten pertsonetikiko harremana sustatzea oso garrantzitsua da. Izan ere, gehien interesatzen zaiguna gure bezeroen kopurua gero eta gehiago handitzea da, eta dagoeneko gurekiko leialak direnak mantentzea. Gure produktuak bezeroari eskainiko dituen baliorik nagusia erositakoa da. Bezeroek izango duten zalantza guztiak argitzen eta, batez ere, behar duten laguntza guztia ematen saiatuko gara. Interesdun berriei dagokienez, gure munduan sartzeko eskatzen duten informazio guztia emango zaie. Bezero berriek laguntzen egongo gara uneoro, dena uler dezaten eta ematen ditugun onurak ezagut ditzaten.

Pertsonak, bezeroek zein bezero ez direnak, hainbat baliabide izango dituzte gurekin komunikatzeko eta gure produktuaren inguruan behar izan dezaketen edozer galdetzeko. Gure telefono finkoa izango dugu lan-ordutegiaren barruan deitu ahal izateko eta gurlangileetako batek telefonoari adi egongo da, behar duzun guztiarekin gidatzeko prest.

Bi mota desberdineko laguntza eskaintzen diegu pertsonari; laguntza pertsonalak eta autozerbitzuak.

Telefono-zenbakia, web-orria eta sare sozialetako kontuaz gain, gmail-kontu baten bidez harremanetan jartzeko aukera ere izango dute. Kontu honek eskainita egongo da aipatutako kontaktu hauetan.

